

GEHIGARRIA JOSE LUIS NIEBLA UDAL ARTXIBOKO ARDURADUNARI ELKARRIZKETA
KULTURA ELGOIBARKO IZARRA IDATZ LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

BARRREN

ASTEKARIA

Elgoibarko Mendi Itzulia
pausoz pauso

ELGOIBARKO ASTEKARIA



RENT

GARBIKETA

MANTENIMENDUA AUTOEN ALOKAIRUA

Tel.: 902 103 287

Sigmako industrialdea - 7 eta 8 pabilioiak

MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA GARBI ETA PREST!

KONPONKETA TAILERRA



MANTENIMENDU OROKORRA
01.10, BAIAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRAIA

GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA



ESKAINZA BEREZIA:

PNEUMATIKOAK 4 X 3
3 ORDAINOU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU



rerestone

GOODYEAR

ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK

APARTAMENDUAK

DUPLEXAK

LORATEGIDUN DUPLEXAK

GARAJEAK

MERKATARITZA LOKALAK



MAALA BIZIGUNEA



Saimenta bulegoa:
C/ Bernardo Ecenurro, 2

(943 740 858

Eraikilzailea:

alomin
AMENARAR

Sustatzailea:

URTAGO
PROMOZIOAK, A.I.E.



Eroak

UPN alderdiaren Urteko Batzar Nagusian, Nafarroako Gobernuako presidentek, Miguel Sanz-ek, Espainiako Konstituzioa Erreformatu egin behar zela aitortu zuen. Zertarako? Nafarroa Damokles-en uztaipetik askatzeko. Nafarroak Euskal Herriarekin bat egiteko aukera dauka Konstituzioaren 4. Xedapen Iragankorrek dioenez, eta hori, bera bezalako nafar peto batentzat, infernuko zuloan amaitzea bezain beldurgarria da. Nafarrak azkenean euskaldun! ikusteko jaioak gara'- pentsatuko zuen Sanz-ek. `Nafarrak erotuko balira, Nafarroak euskaldun izaten amaitu lezake'. Eromenak bakarrik eragin lezake neurri horretako hondamena Nafarroan. Baina Sanz-ek eta bera bezalakoek, badakite ez dutela inoiz lortuko euskaldun sena nafarren bihotzetik ateratzea. Inon ezagutu badituz euskaldunak, zinez diotsuet, Nafarroan izan da. Iparraldean, eta hego aldean ere bai. Nafarren euskaldun sena, eromenaren hazia da Sanz-en iritziz. Ekuazio simple bat eginez, beraz, hauxe ondorioztatu daiteke: euskaldun izatea eroa izatearen parekoa dela. Bada, Sanz jauna, zera esango dizut, ero izan nahi duten guztiak esku-zabalik hartuko ditugula gure eroretxean. Zu, ordea, kaskotik `sano' zaudenetakoa zarenez, zaude lasai, ez zaitugu-eta sekula gurean hartuko.

Ainhoa Lodoso



Bazen garaia!

Pasa den Aberri Egunaren inguruan zenbait pintada agertu ziren herrian, guk dakigula hiru tokitan. Orain arte ezer berririk ez, bai ordea udaletxearen jarrera eta baita beraien mezua. Normalean di-da batean kentzen dituzte pintada zein muralak, zenbat aldiz ezabatu ote dute Euskal Presoak Euskal Herrira zioena? Horrenbesteko mina ematen al zuen herriko antzoki azpitan zegoen Gernikaren muralak? Ez zien min haundirik egiten Maalan agertutako gurutze gamatuak (gurutze bat borobil batekin), skinhead, gurutze gamatu batez i hizkiaren puntuan, eta azpian bi esbastika ta hauen erdian NS (Nazional Sozialista). Plaza txikian aek-ren lehio pean beste esbastika bat, eta konportako etxearen bukaeran beste esbastika haundi bat eta calibre 88 leloarekin (alfabetoko 8.zenbakia H hizkia dugu, beraz Hey Hitler).

Argi dago hau idatzi duenak zerbait badakitela, baina ez dena. Skin Head mugimenduak sustrai beltzak ditu, hain zuzen ere Rude Boys oinordekoa direlarik, hauek ordea Erresuma Batuko langilegoaren semeak ziren, eta getho jamaikarretara joaten ziren ska doinuak dantzatzera eta belarra erretzera (reaggearen hasierako izena Skin Head Reggae zen). 80. hamarkadan talde eskuindarrek kaskamotzen iturra hartu (paramilitarragoa) eta izenaz jabetzea nahi izan zuten, beraiek Boneheadak (hezur buru) direnean. Beraien erasoei aurre egiteko mundu mailan Sharp (kaskamotzak arrazakeriaren kontra) taldea sortu zen. Beste alde batetik kaskamotzak berez apolitikoak dira, baina badira kaskamotzen talde ezkertiarrek ta baita elkarrekin mundu mailan nazien erasoan zai egon ordez berain kontra jotzen duena Rude, kaskamotz anarkista eta gorriez osaturikoa.

Euska Herrian 80. hamarkadan agertu ziren lehendabiziko kaskamotzak, batetik bat Kortatu musika taldearen laguntzaz. Bertako egoera politikoak baldintzatuz, bertako kaskamotz gehienak ezkertiarrek dira. Izan dira taldetxo batzuk Donosti, Bilbo eta Iruñean jarrera naziekin, baina gehien bat espainiar naziekin dute lotura. Azken aldirian herri askotan ikusten ari gera kale tribu honen suspertzea, espero dezagun galdurik ez ibiltzea. Stay rude stay rebel!

P.D. Gernikako arbola hil da, baina ez zikuteaz. Kortatukoek zioten moduan "Gemika errea bonbardekatua, haritz zahanrak zutik dirau, nahiz usteltzen egon, gaur paktu faltsuen ikusle".

Nestor Fuentes

Atal hauek ez dira egiterakoan, bestela

O
noti
N

Kexak	11
inotz MotZ	8
ge higarrria	13
kiRolAk	20

ESKERRIK ASKO ELGOIBAR!

HERRITARREN ZERRENDAREN izenean eskerrak eman nahi dizkiegu kandidatura nazional honek Europako hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko bere sinadura eman duten elgoibartar guztiei. 40.000 sinadura jasotzeko erronka jarri genuen eta lortu dugu. Hainbat Udaletxetan jarritako oztopoen gainera, 49.000 sostengu jaso ditugu Hego Euskal Herrian 2 astetan, 372 Elgoibarren. Gure herriaren kasuan, aldiz, Udal idazkariari eskerrik beroenak ere eman behar dizkiogu izandako jarrera lagungarriengatik. Azkenik, Elgoibarko notaritzari ere, mila esker!

**HERRITARREN ZERRENDAREN izenean
J.Karlos Markos - EHNA A55510848**

BESTE MASAILA

Izenburu hori prestatua neukan katolikotasuna defendatuko zuen pertsonari erantzuteko. Izugarriko desilusia sentitu ondoren niri zuzenduak zeuden eskutitzei erantzutea erabaki nuen.

Zuri Maritxu, zerbait esango dizut. Zera diozu: ez duela pena merezi erantzuteak; baina nire iritziz ez dakizu nola egin, ematen ditudan datuak benetakoak baitira. Eta ez dut uste publikoki sodomitak, bitxi trafikatzailerak eta antzekoak babesten ari zarenik. Nire proposamenari dagokionez, herriaren nahia aurrera eramango balitz eliza bodega bat izango litzateke.

Bestalde, denborarekin ixilik egoten ikasiko dudala diozu; baina zera diotsut: 1976tik (egutegi katolikoaren arabera) jarraitzaile anarkista naiz.

Artaldeko ardi beltza sentitzen naiz; egun batean artaldetik ihes egin zuena, zeren banekien ez zegoela artzain fidagarririk; gainera inoiz ez zait gustatu hainbeste astakilo arkumeren konpainia. Honetaz gain, uste dut hildako anuinak bakarrik jarraitzen diola korronteari.

Eta zuri "A.M.A." idazle bezala bikaina zalera ikusi ondoren, zera esan nahi dizut: hitz asko idazteko gaitasun duzula ezer argitu gabe. Errespetatu egin behar dela diozu; duela astebete arte ondo aldarrikatu duzu... baina:

*EAJkoek Karakate beraien antena eta eolikoekin desegitea proposatu zutenean, errespetatu zenituen eta ez zenuen ezer idatzi.

*Ertzaintza herrian sartu zenean eta sei pertsona atxilotu zituenean preso politikoen gerturatzea eskatzeagatik. Errespetatu zenituen eta ez zenuen idatzi.

*Ertzaintza herrian sartzean eta Alkortako eraikuntza hustu zuenean? errespetatu zenituen eta ez zenuen ezer idatzi.

*Langileak beraien lantokietan zaurituak edo hilak suertatzen direnean, nagusiak errespetatzen dituzu eta ez diezu ezer idatzen.

Eta orain, zergatik idazten duzu sinisten ez duzun zerbaitengatik errespetua eskatuz?

Honez gain, zera esan nahi dizut "A.M.A.", hau ez hartzeko eraso bat moduan, zeren "erre.spetu" guztiz idazten dizut, zuk zuzendurikoa bezala. Azkenik, herriari eskerrak jaso dudana laguntzagatik. Osasuna eta Anarkia, lagunok!

**Sergio Fernandez Pictin
NAN 15.383.713**

DANOBATEN 50 URTEAK DIRELA ETA

Gomita jaso dut egun hauetan, Danobat Kooperatibaren 50 urtebetetzea dela-eta, bazkide-sortzaile **bezala, omenaldi eta ekitaldietara ager nadin. Gomita ez onartzea erabaki dut, eta, baten bati** jakingarri gerta dakiokelakoan, bi hitz idatziko ditut nire iritzia agertzeko.

"Sortzaileen Omenaldia", dio gomitak, baina Danobatek argitaratuko duen historia liburuxkari begiratuta, guztiz kontrako egin nahi dutela ematen du: sortzaileok ezkutatu egin nahi gaituzte eta gure taldera azken orduan eta baldintzaz josirik etorri zirenen figurak gorraldu.

Liburutxo horretan ez dute aipatzen Danobat sortzeko asmoa lehen aldiz nork eta nola plazaratu zuen; izena nork jarri zion; sortzaileen taldea antolatzen nortzuek egin zuten lan; lehenengo langileak nortzuk izan ziren...

Itxura batean, hori guztia ez da haien interesekoa gaur. Lehen urratsak nolakoak izan ziren, ez zaie batere axola. Egiazko historia baino, bertsio "politikoki zuzena omen dena" dute nahiago.

20 hilabete daramat Danobateko arduradunei gauza bera errepikatzen: idatzi duten historia ez dela historia, istorio interesatu bat baizik ez dela, alegia. Kasurik ere ez dute egin nahi, ordea. Agian, beste 50 urte beharko dira, benetako historia ezagutzeko.

Beraz, pasa ditzatela egun zoriontsuak eta ospa ditzatela ospatzekoak. On egin dariela euren bertsioak.

Felix Etxeberria "Parapan"

BAZKIDETZAKIA

Ba

Nalarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

zr 943 74 41 12

Publizitatea:

943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 D4

E-posta:

barrengtopaguneu.com

Helbide informatikoa:

wwwtopagunea.conebarren

ARGITARATZAILA

Elgoibarko Izarra

ELGOI

MILO 12mR14

.111.1.111

Elgoibarko Udalak, Eusko faurtarkako Kultura Sailak
ela Foru Aidundiak diruz lagundurako akizkaria.



kutxa
VArle Ckncra

1DANOBAT
MOUDXAS

GRUPO DA,NOBAT

IESTARTA

- Herritar batek esan digunez, **euria egiten duenean Musika Eskola ondoan dauden eskaileretatik ur mordoia jaisten da:** "Musika Eskola eta etxe berrien artean dauden eskailerak urez beteta egoten dira euria egiten duenean. Etxe berrien obretatik ur mordoia erortzen da, Zapatak eta askotan prakak ere busti egiten dira".

- Herritar batek Azkoitiko Rally-Sprint-eko antolatzaile eta ikusleak salatu nahi ditu, **Azkarateko errepede guztia zikinke-riaz beteta laga zutelako:** "Igandean autobide zaharretik Azkarate aldera nindoala, bazter guztiak zikin-zikin ikusi nituen. Larunbatean rally edo antzeko probaren bat egon omen zen eta badirudi jendeak, inongo errespeturik gabe, zabor guztiak bertan laga zituela. Larunbateko probaren arduradunak eta bertara joan zen jendea salatu nahi nituzke. Lotsagarria benetan".



- Herritar batzuk esan digutenez, **autopistako sarreran dagoen errotondan belarra oso altu dago:** "Edozein norabidetan joanda, ez da pareko karrila ikusten, eta askotan kotxeak etorri arren, badi-rudi errotonda libre dagoela, Ez dakigu noren lana den errotondak txukun mantentzea, baina beste toki batzuk baino garrantzitsuagoa dela uste dugu. Beraz, ezbeharren bat gertatu aurretik, dagokionak moztu dezala belarra, mesedez".



e) yw_hodu

- Gazte koadrila batek **Gazte Asanbladakoak txalotu nahi ditu, joan zen asteburuan antolatutako ekintzengatik:** "Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, oso giro polita izan zen Madalan, larunbatean batez ere. Madalako parkean sarriago egon beharko lirajteke honelako ekitaldiak".



Barrak, Birak eta Barreak

Elgoibarko Mendi Itzulia

pausoz

SAN MIGUEL (335m) 26km

Jan eta edateko bigarren gunea. Une egokia Kalamuako malda gogorrei aurre egin aurretik indarrak berreskuratzeko.



BIGOIN (424m) 24km

Aldapa gogorra dago Altzolatik Aiastia baNarako Bigoin baserriraino. Haize gutxi jotzen du bailara honetan eta eguzkiak gogor jotzen badu asko gartzen da.

ALTZOLA (35m) 21,

Urnobitziatik Altzoraraino der Bidean Al/ola Berazeta base pasako dira. Behin altzolan, dagoen eraikuntza azpitik igE bidea. Tunela da San Migel t pasagunea.

KALAMUA (737m) 31km

Benetan gogorra egiten da Kalamuara igotzea horrenbeste kilometro egin eta gero.



AURINA (500m) 34km

Aubixatik San Pedrorra joan beharrean zuzenean Saturixora joko dute.



ELGOIBAR (42m) 9/38km

Plaza Handitik atera eta San Roke alderantz abiatuko dira mendizaleak. Maltzagarako norabidea hartu eta Karakate gailurreraino iritsiz. Ibilbideko desnibelik handiena gainditu beharko dute; 700 metro.



KARAKATE (742m) 5,6km

Karakate eta Irukutzeta bitarteko zatia ibilbideko ikusgarrietakoa da. Bidean, tumulu, megalito, dolmen eta historiaurreko arrasto mordoak pasako dituzte



IRUKURTZ

Ibilbideko pun Azkaraterantz beheran.

pauso

m
ta jaitsiera.
ondotik
lolako Urak
:zen da
larara joateko



WINOBITZA (824m) 16km

Mendi ezaguna herriko ehiza zaleen artean, bertan ospa/en baitira ehiza txapelketa gehientsuenak. Gailurrera iritsi arteko aldapa nahliko gogorra



OTZAUURTE (484m) 14km

Lehen atseden lekua. Karakate Elkarteko lagunak arduraluko dira mendizaleei hamarretako bikaina emateaz.

ETA (825m) 11,9km

turik artuena. Hemendik
tbiatuko dira aldapa

Maiatzak 23

Izen ematea

Izen ematea aurrez egitea gomendatzen da. Morkaiko Mendizale Elkartearen egin daiteke (Errosario kalea, 17). Bazkideentzat 6 euro eta 8 euro bazkide ez direnentzat. Egunean bertan ere eman daiteke izena goizeko 5:00etatik aurrera Morkaikoren egoitzan: bazkideek 10 euro eta 12 euro bazkide ez direnek.

Partaidetza

Iaz partaidetza errekorra hautsi zuen Elgoibarko Mendi Itzuliak. 206 lagunek hartu zuten irteera eta 175 inguruk lortu zuten amaitzea. Duela 3 urte 86 partaide izan ziren eta 135 orain dela bi urte.

Ibilbidea

Ibilbidea 38 km.koa izango da. Aurten aldaketa txiki bat izango da. San Pedrorra joan beharrean Aubixatik zuzenean Saturixora jo beharko baita, lehen egiten zen moduan.

ninintu

Bidean bi tokitan (Otzaurren eta San Migelen) antolakuntzako talde bat egongo da jana eta edana eskainiz. Bukatu ondoren, bazkaria emango zaie partaide guztiei Merkatu Plazako azken solairuan.



erreporta ea

IBILTARIAREN DEKALOGOIA

Ranuin Garate EMF-ko Aholkularitza Baizordeko Medikuak eskainitako mendizate ibiltariaren dekalogoia.

1. Norberak duen egoera fisikoaren arabera egokitu martxaren erritmoa. Martxako lehen ordu erdian erritmo motelean hasierako berotze ariketak ondo egitea beharrezkoa baita. Ibilaldi aurreko astean, eta gutxienez bi egunetan eta behinik behin ordubeteko iraupeneko jardunean, ariketa fisikoa — jogging-a, martxa, txirringa, etab.— egin.
2. Gutxienez bi orduetan behin jan eta edan ezazu. Ura soilik edo bestelako gaiekin, nahasdua isotonikoekin, infusioekin, etab., energian oparoak diren eta gorputzak asimilatzen azkarrak diren elikagaiak jaten ditugun bitartean: igali zimelak, zereal barratxoak, txokolata, menbriloa, gailetak... etab.
3. Eguraldi baldintzen arabera egokitu ezazu janzkera. Arropa transpiragarria erabil, ez ahaztu beti aldatzeko arropa eramatea, batez ere galtzerdiak eta linja edo azpiko arropa, eta lepoa eta burua txapel batez estal itzazu.
4. Motxila arina eta bolumen txikikoa izango da. Bere barruan gauza hauek sartuko ditugu: aldatzeko arropa, euritakoa, kantinplora, jakiak eta botikin txiki bat, eta baita inguruko mapa eta iparrorratza ere.
5. Oinetakoak jarduera mota honetarako egokia izan beharko du. Mendi-ertaineko bota da gomendatzen dugun oinetako-mota, izan ere, kanabera altua duenez orkatila ondo eusten du. Oinetakoaren neurria oinen tamainari dagokiona izango da. Era honetan, oina botaren barruan "kili-kolo" ibil ez dadin arduratuko gara, kili-kolo badabil urradurak izango ditugu-eta. Materialik gomendagarriena larrua da, edo larrua bestelako material sintetikoekin nahastua. Irrista edo labain ez gaitzen,

oinetakoaren zolak egoera onean daudela ziurtatu. Galtzerdirik egokienak artilearen eta zuntz sintetikoaren nahasketez egindakoak dira.

6. Botak ondo jarri eta lotu itzazu. Orpoak botaren atzealdearekin kontaktuan izan behar du, botaren mihia ongi tenkatu eta estekatzea estaturik, soka-laster edo saltorapilo ez den korapilo batez blokeaturik berau aska edo lasai ez dadin. Jaitsierari aurre egin baino lehen, oinetakoaren lokarriak askatzea eta berriz lotzea gomendatzen da.

7. Oinaren higie-nezaintak. Martxa egin aurretik zein amaitu ondoren, oinen garbitasunaren garrantziaz arduratuko gara. Ibilaldia egin baino lehen, behatzen azkatzak moztuko ditugu: azkatzetako izkinetako ertzak amañ bat itengo dira baina adi! forma biribilez moztuko ditugu. Era honetan, behatzen zauriak zein infekzioak ekidino ditugu.

8. Oina lurrazalari egokitu. Oin zapalak, sakonak, valgoak edo bestelako arazoak dituztelako, pertsona gehienek barne-zolen zein bestelako gai ortopedikoen beharra dute oinak botaren forma lauari egoki daitezen.


9. Oinetako azala babes ezazu. Oinetako azalean lesioak agertu ohi diren lekuetan, telazko edo silikonazko partxe eranskorrek babes gisa erabil itzazu.

10. Oinetako babak zain itzazu. Ibili bitartean babaren bat sortu bada, oinez jarraitzearen, baba estaltzen duen azalean ebaki txiki bat egin, berau hustu, soluzio aseptiko batez babestu eta ondo erantsitako silikonazko partxe eranskor bat jartzea gomendatzen da.



ESKERTZA

2004ko maiatzaren 10ean, 67 urte zituela hil zen, MARI TERE BASTIDA ZABALETAren senarrak, anai-arrebak eta gainerako sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MARI TERE BASTIDA ZABALETA

Bastidatar sendiak ez zaitu ahaztuko.





Erdi Mailako Heziketa Ziklo berria jarri dute martxan IMHn

Lanbide Heziketako aurtengo eskaintzan "Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimentu elektromekanikoa" izeneko erdi-mailako zikloa gehitu dute. Batxilergoa ikasteko asmorik ez duten ikasleen eskaerari erantzunez eta elektrizitate eta hidroneumatika moduko teknologietan ezagutza orokorrak dituzten muntatzaile



mekanikoen lan-postuak betetzeko asmoz.

Formazio praktikoetan hobeto moldatzen diren ikasleei lan mundurako irteera interesgarri eta beharrezkoa eskaintzea da ziklo berraren helburua.

Zikloei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, datorren maiatzaren 20an eta ekainaren 3an ate irekien saioak izango dira, arratsaldeko 19.00etan IMHn.

Herri Eskolakoak Gorbea eta Kakutan izan dira

Herri Eskolako Mendi Taldeak irteera bikoitza egin zuen joan zen maiatzaren 2an: alde batetik 5. eta 6. mailakoak Gorbeara joan ziren Institutuko DBH1 eta 2. mailako ikasleekin, eta gainontzekoak Kakutan izan ziren. Nagusienak Pagomakurratik Gorbeara joan ziren, eta elurretan egin zuten bidearen zati bat. Txikien irteerak, erantzun ona izan zuen. 55 lagun elkartu ziren, eta ez zuten aspertzeko unerik izan. Kakuta Eguna ospatzen zen egun honetan, eta mendia jendez gainezka zegoen. Ondoren, erronomia eta txistulari saioaz gozatzeko aukera izan zuten. Hurrengo irteera maiatzaren 23an egingo dute Aralarko Mikel Deunaren Santutegira.



Wastolako DBH 1. mailakoak Legebiltzarrean izan ziren



Ikastolako DBH1. mailako ikasleek Eusko Legebiltzarra bisitatu zuten pasa den apirilaren 27an. Bertan, gida baten laguntzaz, Legebiltzarra barrutik ezagutzeko aukera izan zuten. Bide batez, Gasteiz hiria ezagutzeko aprobetxatu zuten txangoa, kale eta plaza nagusiak bisitatu zituzten. Esan digutenez, egun zoragarria pasatu zuten.

Ikastolako DBHko ikasleak Elhuyarrek antolatutako olinpiada birtualetan

Ikastolako DBH 1. mailako ikasleak Elhuyar taldeak antolatutako 2. Zientzi olinpiada birtualean parte hartzen ari dira. Olinpiada hauek bi helburuekin antolatzen dituzte: alde batetik zientziarako hainbat ikerketa egiteko eta bestalde, internet eta informatika munduak dituen tresna desberdinen erabilera indartzeko.

Olinpiada urrian hasi zen eta ekainean bukatuko da, Elgoibarko Ikastolak 4 taldekin hartzen du parte eta denera 92 talde daude. Momentuz lehengo 18 onenen artean daude baina, esan digutenez, garrantzitsuena probak prestatzen eta informatika erabiltzen pasatzen dituzten **uneak dira. Benetan** interesgarria omen da eta ia konturatu gabe gauza mordera ikasten ari dira.



Atxutxi Krosa eta Karrantzara irteera antolatu ditu Atxutidamaika Aisialdi Taldeak

Haur Hezkuntzako umeentzat Atxutxi Krosa izango da bihar, maiatzak 15, Plaza Handian. Goizeko 11:30ean hasita, partehartzaileek beraien dorsalak eta banderitak egiteko hainbat txoko jarriko dituzte. Ondoren krosa izango da, eta bukatzeko, opariak banatuko dira. Bestalde, Lehen Hezkuntza 3,4,5 eta 6. mailakoentzat, Karrantzara irteera antolatu dute datorren maiatzaren 29rako. Karpin abentura parkera joango dira, eta bertako dinosauruak eta animalia basatiak ikusteko aukera izango dute. Honetaz gain, parkean dauden kobazuloak bisitatuko dituzte. Goizeko 9:00etan irtengo dira eta buelta iluntzeko 19:00ak aldera izango da, Ikasle bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Irteeraren prezioa 10 eurokoa da, eta izena emateko epea maiatzaren 25ean bukatuko da.


3.240 langilerekin, Elgoibar da Debabarrenean langile industrial gehien dituen herria

580 enpresatan banatuta, 12.447 langile industrial daude Debabarrenean

Debeesak eginiko ikerketa baten arabera, 580 enpresatan banatutako 12.447 industri lanpostuek Debabarrena eskualdeko industria sendotu zuten 2003. urtean. Industriaren sektorean beherakada nabarmena izan zen iaz, eta orokorrean ekonomia geldotuta egon zen. Hala ere, Debabarrenako industri sektoreak bere ehun industrialia mantendu egin zuen.

Elgoibar nagusi

Elgoibar da, 3.240 langilekin, eskualdeko industri lanpostu gehien dituen herria. Lehenengo postu hau duela urte batzuk kendu zion Eibarri, gaur egun 2.925 langilekin bigarren postuan dagona. Hirugarren postuan Ermua dago, 1.701 langilekin, laugarrenean Deba 1.599 langilekin eta bostgarren postuan Mallabia, 1.423 lanposturekin. Hauen atzetik Soraluze dago, 638 industri lanposturekin, jarraian Mendaro, 536 lanposturekin, eta azkenik Mutriku, 385 lanposturekin.



Debeesak kaleratutako datuen arabera, Elgoibarren 131 enpresa daude.

Enpresa gehien Eibarren

Nahiz eta langile kopuruari dagokionez Elgoibar lehenengo postuan egon, enpresa kopurua kontuan izanik Eibar da herrien zerrendako lehenengoa. Debeesak kaleratutako datuen arabera, Elgoibarrek 131 enpresa ditu eta Eibarrek 199. Hala ere, badirudi Elgoibarko

enpresak handiagoak direla Eibarkoak baino.

Mallabian 65 industri enpresa daude, Deban 60, Ermuan 47, Soraluzen 37, Mutrikun 21 eta Mendaron 20. Azkenik aipatu behar da, Debabarrena Eskualdeko enpresa kopurua finko mantendu dela azken urte honetan.

Eraikuntzaren sektoreko grebak eragin nabarmena izan du Elgoibarren

Otsailaren 13an eta 14an salaketak jasotzeko mahaiak jarriko dituzte kalean

ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deituta, maiatzaren 10ean hasi zen eraikuntzarena sektoreko greba. Sindikatuek jakinarazi dutenez, lehenengo egunean %90eko erantzuna izan zuen grebak, eta ADEGI patronalak datu berbera eman zuela kontatu digute Eibarko LABeko arduradunek. Elgoibarren ere, eragin nabarmena izan du grebak, eta etxebizitza obra gehienak geldirik egon dira.

Grebaren arrazoiak

LABetik jakinarazi digutenez, Negoziazio Mahaiaren azken bileran, sindikatuek negoziazio ahalegin handia egin zuten, beraien eskaerak zentzuzko mugetara arte murriztuz: "Patronalak bitartean jarrera borrokalari bat hartuz, dieta, kilometrajea, kontratazioen hobekuntza, gaixotasun bajak



osatzea edo azpi kontratazioaren arautzea besteak beste, alde batera utzi behar ditugula esan digu". Sektore honetako irabaziak ezagututa, sindikatuek ez dute patronalaren eskaintza onartu, eta hitzarmen hobea lortzeko borrokatuko dutela adierazi dute. Ondoren aipatuko ditugun eskakizunak kontuan hartuta deitu zuten greba, eta ez dakite noiz arte luzatuko den.

- Sektorean enplegu finko eta egonkorra sortu
- Soldatak %4,42 igo, eta 2005ean proportzio berarekin jarraitu Lanaldia 16 ordutan murriztu
- Kalte ordainak: %4,5etik %7ra igo obra amaieran
- Guztiek dieta kobra dezatela. 9,4 euro aurten eta 10,4 euro 2005ean.
- Euren ibilgailua erabiltzen badute guztiek kobratu dezatela
- Etxetik lanerako bidai denbora ordaintzea
- + Gaixotasun bajak %75a arte ordaintzea
- Lanean osasuna eta segurtasuna
- Erreferentziako lurralde egutegia
- Plataformetan dauden gainontzeko eskakizunak kontuan hartzea

Gazte Asanbladak antolatuta, Kaleak Berreskuratu jaialdia izan zen Madalako Parkean



Euria izan zen protagonista nagusia ostiraleko ekintzetan. Ekitaldi desberdinak antolatu zituen Gazte Asanbladak, baina oso jende gutxi bildu zen Madalako Parkean. Eszenatoki gainean igota, euritik ahal zuten moduan babestuz, bizi izan zuten perkusio jaialdia. Larunbatean eguraldi hobe egin zuen, eta kontzertuek izan zuten harrera handiena. Arratsaldeko 19:00etan hasita, "Ttakumpa", "Keike", "Nok" eta "Hurto" taldeen emanaldiak izan ziren Madalako Parkean. Gauera arte luzatu ziren kontzertuok.

Euriak bustita ospatu ziren Galiziar jaiak

Txapligu hotsez inauguratu ziren Galiziar jaiak joan zen ostiralean, maiatzaren 7an, eta asteburu osoan zehar ekitaldi desberdinak izan dira Herri Eskolako patioan. Eguraldiak ez zuen ostiralean gehiegi lagundu, eta oso jende gutxi hurbildu zen "Principal" orkestraren dantzaldira. Larunbat eta igandean, ordea, hobera egin zuen eguraldiak, eta herritar gehiago igo ziren Galiziako jaki tipikoak dastatu, eta bertako ikuskizunez gozatzera. Sarreasuko (Orense) Udaleko Gaita Bandaren ekitaldia izan zen larunbat eguerdian protagonismo handiena izan zuena. Jendeak bermuta hartu eta olagarroa jaten zuen artean, Galiziako doinuez gozatzeko aukera bikaina izan

zuen. Igandean Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Sarreasuko Gaita Bandarekin, Euskadiko eta Galiziako Folkloreen erakustaldia izan zen. Arratsaldeko 19:00etan bukatu ziren jaiak.



Merkatu Plazako dendariak CO euroko lau txeke banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Eloisa Abetxuko, Pakita Azkona, Mari Tere Zabalo eta Elena Eguren izan dira irabazitzaileak. Saria erosketan txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi pertsonentzako bi afari zozketatuko dira.

Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntzak emango ditu Udalak

Udako Euskal Unibertsitateak 33 ikastaro eskainiko ditu aurtan. Horietako batzuk Biarritzen izango dira, uztailearen 5etik 9ra, eta beste batzuk Irufiean, uztailearen 19tik 23ra bitartean. Ikastaroez gain, bi astetan zehar makina bat praktika, jardunaldi eta emanaldi izango dira.

Besteak beste, Antropologia, Pedagogia, Historia, Ekonomia, Filosofia, Kazetaritza, Hizkuntzalaritza, Psikologia... eskainiko dira.

Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntza emango die, beka gisa, UEUren ikastaroetan parte hartu nahi duten herriko langabetu eta ikasleei.

Interesatuak Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso dezakete informazio gehiago, edo goizez 943 74 43 66 telefonoan.

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateak eskaintzen dituen ikastaro hauetan parte hartzeko izen emateko epea maiatzaren 19tik ekainaren 27ra bitartean egongo da zabalik. Ikastaroei buruzko informazio gehiago www.ueu.org webgunean aurki daiteke.

Udaleko kexa zerbitzua

Elgoibarko Udalak kexa zerbitzua dauka martxan, eta herritarrei gogorarazi nahi die, edozertarako beraien zerbitzura dagoela. Kexak jartzeko udaltzaingora joan besterik ez da egin behar, eta hamabost eguneko epean Udalak erantzun bat emango dio kexa jartzaileari.

Einbiou Herri Plataformak Plaza Txikia autoz iihratzeim proposamena egin du
**ZER IRUDITZEN ZAIZU PLAZA TXIIKITIK AU7011 KENDU 1E^o
 AISIALDI GUNE BAT EGLITEA?**



ANDER TAPIA

22 urte, makina erreminta langilea

Ondo, Elgoibarrek bihar du umiek jolasteko eta aisialdirako leku bat. Parke gutxi daoz herrixan, eta ondo etorriko litzake honelako gune bat. Ideia ona iruditzen jata.

MARI CARMEN GONZALEZ

57 urte, etxeoandrea

Ondo. Aparkalekuak beharrezkoak dira, baina umiek jolasteko ez daukate leku egokirik. Biak dira arazo handiak, baina aisialdi guneari emango nioke lehentasuna.



ION CASADO

12 urte, ikaslea

Oso ondo. Elgoibarren ez dao ganorazko parkerik. Madalako parkea ere kendu zuten, eta ondiokan ipini gabe dao. Umiek jolasteko leku gehixo ipini bihar dia.

MANUEL MARTINS

59 urte, jubilatua

Ondo iruditzen zait. Umiek jolasteko eta aisialdirako guneak behar dituzte. Lurrazpiko aparkaleku bat eginenez, kotxeen arazoa erraz konpondu daiteke.



PACO LINARES

35 urte, kupoi saltzailea

Ez da ideia ona. Aparkatzeko arazo handia dago herrian, eta dauden apurrak kentzea ez dago ondo. Parkeak ere behar dira, baina aparkalekuak gehiago.

ARANTZA ALONSO

46 urte, administraria

Ondo, baina kotxeak aparkatzeko irtenbide egoki bat bilatu behar da. Aisialdirako gune gehiago egitea ondo dago, baina ezin dugu aparkalekuen arazoa ahaztu.



I. URTELIRRENA


2003ko maiatzaren 16an, 94 urte zituela hil zen
TEODORA ARAKISTAIN ZUBIZARRETAren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan
 larunbatean, hilak 15, arratsaldeko 20:00etan.
 Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



BARRREN

ASTEKARIA

elkarrizketa



itachivo
PERMA NENTES JULIO 1981
PERMA NENTES DIC 1981
PERMA NENTES NOV 1981
Akoilvo
PERMA NENTES MARZO 1981
PERMA NENTES FEB 1981
iml tvo
14MA NENTES MARZO 1981
It
PEpAA NENTE FEB 1981

ELGOIBARTAR ASKO EGONGO DA ORAINDIK ERE BERE HERRIARI PRUZKOMISTORWN.ON TOITU
 (pIza,KEEt4)+Kosi pAe,E4NO3: ___
 K
 WYZEK0i:GARAJE HAR BATe
 D'IRUDIEN LOKALEAY1,,
HORRENBESTEKO HISTORIA GORDETZEN DEN1K. KANPOKALDEA 1KUSIRIK ZAILADA BARRUAN ZER -DAGOEN-ASMATZEA BAINATEA IREKI, ETA FIANTXE AURK1TU D1i99?
 JOSE L1311111 BLA: UDAL-7.
 ARTX11g6104:j4DURADUiiA
ETA DOKUIVIENTWARTEAN. 1KUJP_ -DEZAGUN, ZR EZKUTATZEN DUEN ELGOIBARKO UDAL ARTX1130AK

DE GOBIERNO ABRIL 1987
 DE GOBIERNO MARZO 1987
 DE GOBIERNO MARZO 1987
 GOBIERNO FEB 1987
 GOBIERNO ENERO 1987

Jose Luis Niebla

"jtairl EGIN BEHAR DA [NTERESGARR1AK IZAN DAITEZKEEN GAUZAK GORDETZEN"

Jose Luis Niebla

"Balio historiko ham

60 URTEKO ANDALUZIARRA DUGU JOSE LUIS NIEBLA, ETA ORAINDIK 5 URTE FALTA ZAIZKIO GUTXIENEZJUBILATZEKO. CADIZEKO SAN ROKE HERRIKOA DA, BAINA OSO GAZTE ETORRI ZEN EUSKAL HERRIRA, 1968. URTEAN HAIN ZUZEN ERE 7 ANAI-ARREBA ZIREN, ETA DENAK EKARRI ZITUEN EUSKAL HERRIRA. JOSE LUIS NIEBLAK HIRU SEME-ALABA DITU, ETA DENBORA LIBREA BERE BILOBEKIN PASATZEA GUSTATZEN ZAIO. OFIZIO DESBERDINAK EZAGUTU DITU NIEBIAK, ETA GAUR EGUN UDAL ARTXIBOKO ARDURADUNA DA. BERE LANA GUSTUKO DUELA AITORTU DIGU, BAINA BATZUK EZ OMEN DUTE BERE LANA BALORATZEN.

ARTXIBOKO
DOKUMENTU ARTEAN
ESERITA KONTATU
DIZKIGU BERE
BIZITZAKO NONDIK-
NORAKOAK

Noiz iritsi zinen Euskal Herrira?

1968. urtean iritsi nintzen Donostiara. Atotxako dorrea egiteko obretan hasi nintzen lanean. Istripua izan nuen eta 14 hilabete inguru egon nintzen ospitalean. Orduan ekarri nuen nire familia guztia Euskal Herrira.

/ Eta Elgoibarrera?

Urte batzuk beranduago iritsi nintzen Elgoibarrera, eta 1970ean ezkondu nintzen Altzolan. Oso gustura bizi naiz hemen, sekula ez dut inorekin arazorik izan.

Zein izan zen Elgoibarren izan zenuen lehenengo lana?

Udaltzain lanetan hasi nintzen 1973. urtean, eta 20 urte pasatu nituen lan honetan.

I Nolakoa zen garai hartan udaltzaina izatea?

Gaur egunean den bezalakoa izango zela uste dut. Ez dut uste ofizio hori asko aldatu denik. Garai hartan ere bazeuden autoak, eta lana antzerakoa izango zen.

Multa asko jartzen al zenituen?

Bai. "El boligrafo" deitzen zidaten, beti boligrafoa prest bainekuan multak jartzeko. Hori bai, merezi zuenari jartzen nion. Autoa 15 minutuz gaizki aparkatuta bazegoen, beranduago bueltatzen nintzen ea kendu zuten ikustera, eta han jarraitzen bazuen, orduan jartzen nion multa. Eta auto ilara oso bat gaizki aparkatuta bazegoen, denei jartzen nien multa. Denei edo inori ere ez.

I Garai hartako bitxikeriarik?

Politikoki garai gogorak ziren, eta Guardia Zibilekin makina bat susto pasatu genituen. Plazan aurkitu genuen objektu arraro bat eraman genuen kuartelera, eta denak beldurtu ziren bomba bat zela pentsatuz. Orain barre egiten dut, baina momentuan...

Nola hasi zinen arribategian lanean?

1992. urtean hasi nintzen. Artxibo arduradun postua libre geratu zen, eta hiru lagun aurkeztu ginen lanpostua betetzeko. Lehenengoak ez zekien lan honi buruz ezertxo ere, bigarrenari lan gogorra iruditu zitzaion, eta ni hartu ninduten. 12 urte daramatzat dagoeneko!

/ Udaltzain izatea ala artxiboko arduradun lana da gogorragoa?

Desberdina da, baina artxiboan lan gehiago daukat. Eten-gabeko lana da. Askotan paper eta dokumentuetatik ihes egin, eta Madala aldera joaten naiz haizea hartu eta ideiak ordenatzera. Bueltatutakoan freskoago egoten naiz, eta hobe egin dut lana.



ia dauka Elgoibar {o 1: dal Artxiboak"



"PRESARIK GABE ETORRI BEHAR DUT LANERA, BESTEIA GAIYAK Q DIRA ONDO EGITEN"

Bietatik zein duzu gustukoen?

Udaltzain lana beharbada. Artxiboan lan gehiago egiten dut, eta gainera, jende askok ez du lan hau aintzat hartzen. Esker gutxiko lana da artxibokoa.

1 Zein da gaur egun zure lana?

Artxiboa zaintzeaz gain, udaletxeko bulego materiala erosi eta banatzeaz ardurutzen naiz, eta Korreoseko lana egiten dut, gutunak eraman eta jaso. Udaletxeko gutun guztiak nire eskue-tatik pasatzen dira.

Nola funtzionatzen du Elgoibarko artxibategiak?

Dokumentuak zenbatu egiten dira, eta gero dagokion apalean kokatu eta sailkatu. Zein zonaldekoa den kontuan hartuz kokatzen da bere lekuan.

Nola aukeratzen da dokumenturen bat gordetzeko ala botatzeko den?

Nire eskuetara iristen den guztia gordetzen dut, eta askotan, nik neuk hartzen dut gauza garrantzitsuak edo in-

teresgarriak izan daitezkeenak gordetzeko iniziatiba. Egunkariaren azken alea, Egin egunkariarena... horiek inoren agindu gabe gorde nituen. Artxibo arduradunak jakin egin behar du interesgarriak izan daitezkeen gauzak gordetzen.

Edozein herritarrek dauka bertako dokumentuak kontsultatzeko aukera?

Bai, interesa daukan edonor etorri daiteke. Ez daukat denbora galtzeko, baina benetan informazio bila datorrenari behar duen denbora guztia eskaintzen diot. Ez zait gustatzen jendea bisita turistikoa egitera etortzea.

Zein dira artrdbategia gehien erabiltzen dutenak?

Denetarik jendea etorri izan da hona. Historialariak, idazleak, irakasleak... herriko jende arrunta ere bai, baina normalean informazio konkre- turen bat bilatu nahi duena etortzen da.

Dokumentuak ordenatu, ala irakurri ere egiten dituzu?

Ordenatu bakarrik, ez daukat nire es- kuetara iristen diren dokumentuak irakurtzeko denborarik.

Zer aurkitu dezakegu Elgoibarko artxibategian?

Denetarik dago, nire eskura iristen di- ren dokumentu guztiak gordetzen di- tut. Egunkariak, Gipuzkoako, Euska- diko eta Estatuko buletin ofizialak, festetako programazioak, Barrenak, herriko obretako proiektuak, udalet- xean izan diren langile guztien infor- mazioa, udal plenoetako aktak eta beste mila gauza. Dokumentu ida- tziez gain, Francoren garaiko koadro- ak, Espainiar banderak, lehenengo ikurriña, idazteko makina zaharrak... ez daukat dena gordetzeko lekurik.

Leku falta izan duzue artxibategi zaharrean. Berria antolatzea lan handia al da?

Bai, pazientzia handia behar da artxi- boaren ordenatzeko. Presarik gabe etorri behar da lanera, bestela gauzak ez dira



ondo egiten. Askotan arratsaldetan ere etortzen naiz, bestela ez dut sekula bukatuko. Lokal berria ere txiki geratu zait dagoeneko, eta oraindik gauza mordo daukat bere tokian jartzeko.

Nolkoa da artxibategiko dokumenturik zaharrena?

1542. urte ingurukoa. Eskuz idatzitako liburu batean aurkitu dugu. Trakurtzeko zaila da, baina historialariek dena ulertzen dute.

Balio historiko handiko artxiboa osatu al du Elgoibarrek?

Baietz uste dut. Elgoibarri buruzko informazio guztia dago hemen jasota. Memoria oso ona daukat nire lanerako, eta gauzak ondo gordez gero, berehala aurkitzen dut eskatzen didatena,

Egon al da artxiboko informazioari eragin dion ezbeharren bat?



Bai, 1983ko uholdeetan informazio ugari galdu zen Plaza Txikiko artxiboan. Garai hartan lau zatitan banatuta zegoen artxiboa, eta horietako bat Plaza Txikian zegoen. Kalte handia jasan zuen bertako artxiboak.

Zein da zuretzat balio handiena daukan dokumentua?

Ezingo nuke bat aukeratu, niretzat hemen dagoen guztia baliotsua da.

Nola ordenatzen dira dokumentuak?

Zonaldeka antolatzen ditut. Auzoka,



"112INGO NUKE DOKUMENTU BAKARRA AUKERATU, DENAK DIRA BAUOTSUAK"

kaleka... Dokumentuak bilatzeko orduan modurik errazena da. Zonalde bakoitzaren barruan, kronologikoki gordetzen dira gauzak.

Hasi al zarete teknologia berriak aplilatzen?

Bai, ordenagailu bat jarri didate orain, eta ikasten ari naiz. Momentuz nire egutegia sartu dut bertan eta erosketa guztiak apuntatzen ditut. Artxiboa bertan sartzea ere gustatuko litzaidake, baina horretarako pertsona aditu bat behar da, eta denbora asko.

I Dokumentuak paperean ala CDan nakdago?

Paperaren aldekoa naiz. Paperean, as-


paldiko dokumentuak hemen dauzka gu oraindik. CDa estropeatzen bada informazio guztia galdu egiten da. Estatuko Buletin Ofizialak CDan gordetzen ditugu, baina gainontzekoa ez.

Nola zaintzen dira dokumenturik zaharrenak?

Ez diet ezer berezirik egiten. Oso zaharrak direnak gutxi ukitzen saiatzen naiz, hautsa kentzen diet...

Zenbat gauza botako zenituzke zakarrontzira?

Kotxe guztien altak gordeta daude, eta dokumentu horiek leku ugari okupatzen dute. Gustura botako nituzke, beste gauza batzuei lekua egiteko.



Niebla udaltzaina zeneko irudia, ezkerreko udaltzaina da bera.



Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ
14 Zabaleta	Zabaleta
15 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
16 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
17 Ibañez	Ibañez
18 Bidasolo	Bidasolo
19 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria
20 Fernandez	Fernandez
21 Yudego	Yudego

FARMAZIAK
 ESCAIA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 B4

OKINDEGIA
 16 igandea Fotera

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospdalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Idial Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47

Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32

Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
I kastola	943 74 44 41
Pilar I kastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Espaibi	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO
 Egunero
 Doaostia ^{MARN} 5.45 0S.15... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 jaleganean 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR
 Egunero
 Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTren

VLTORIK

BILBO-DONOSTIA
 Egunero
 Bdtxi 06:00 7.00... 20.00
 Elgoihar 07.23 08 23... 21.23
 jaiegunewn 8 00elan hasiko clita

ELGOIBAR-MENDARO
 Astegunetan
 Elgoibar 07.25 0S.25 10.25... 21 25

Jaiegunetan
 Elgoibar 08 25 09.25 10.25 . 21.25

ELGOIBAR

← SIGMA → → ARRIAGR. ←

SIGMA - ARRIAGA		ARRIAGA - SIGMA	
8:00	8:10	8:10	8:20
9:25	9:35	9:55	10:05
11:10	11:40	11:10	11:20
11:20	11:50	11:40	11:50
12:10	12:40	12:10	12:20
12:20	12:30	12:40	12:50
13:10	13:20	13:10	13:20
13:20	13:30	18:10	18:20
18:20	18:30	19:00	19:10
19:10	19:20		



Giza eskubideak eta bereziki emakumearen eskubideak ardatz harturik, Amnesty international erakundeak, emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko konpainia hasi zuen joan zen martxoan. fido honetatik, Amnesty internationali Gipuzkoa eta Haizea Emakume Elkartek antolatutik, argazki erakusketa bat egon da ikusgai Elgoibarren. Emakumeen sareko partaide den Arantza Lekuonak jakinarazi digunez, argazki erakusketa hau, abendura arte egongo da ikusgai, besteak, beste, Zumarraga, Pasaia eta Deban. Orain arte jendearen erantzunarekin oso pozik daudela adieraz; digu eta era berean, jendea animatzen du emakumeen sareko partaide egitera, behin betikoz emakumeen aurkako indarkeria desagertarazteko eta giza eskubideak mundu osoan bermatzeko.

"Estatuek emakumeen arazoak bigarren mailakotzat dituzte"

ARANTZA LEKUONA

• Zein da Amnesty International-en eginbeharra?

Emakumeen eskubideen hausketari buruz arduratzen gara. **Zenbait herrialdetan oraindik, legeak diskriminatioak dira.** Kasu horietan estatuei lege horiek aldatzeko eta berriak betetzeko eskatzen diegu.

• Zein dira zuen helhuru nagusiak?

Giza eskubide guztiak errespetatuak izan daitezela eta emakumeen sareko partaide bezala, emakumeen aurkako dozein diskriminazioarekin bukatzea: lan mundukoak, etxeoak, tratu txarrak, estatuaren aldetik datozenak...

■ Nolako ekimenak gauzatzen dituzue?

Orokorrean gutunak idazten dizkiegu gogor buruei, parlamentuei eta kontzientziazio kanpainak egiten ditugu; argazki erakusketak, sinadura bilketak... eta Amnistiak emakumeen inguruko kanpaina berria dauka eskuartean.

■ Zer ikusi eta entzun daiteke argazki erakusketan?

Emakumeen argazkiak eta beraien istorioak: etxean jipoituak diren emakumeak, gerraren ondorioz errefuxiatuak diren emakumeen egoera, eta minorien kasuak. Emakumearen egoera 1. 2. eta 3. munduan erakutsi nahi dugu, batetik, alde ezkorrek eta bestetik, guretzat esperantzagarri eta itxaropentsu diren aldeak ezagutarazteko.

■ Zein da 3. munduko emakumeen egoera?

Minoria etnikoen arazoak egoteaz gain, legeak diskriminatioak dira, emakumeak ezin dira zenbait kasutan etxetik atera, ezta ere nahi duten bezala jantzi. Gurean baino

mentalitate matxistagoa ematen da. Analfabetismoa handiagoa da emakumeen artean. Emakumeek ezin dute gizonik gabe bizi, ezin dituzte lanak lortu, askoz menperatuago daude. Estatuak ez dio inolako garrantzirik ematen arazo honi, bigarren mailako arazotzat kontsideratzen du.

• Munduan asko dira generozko biolentziaren ondorioz hildako emakumeak. Hilketa hauen erantzule guztiak izaten al dira epaituak ?

Oso gutxi. Lurralde askotan familiako arazo bezala kontsideratzen da, eta beste batzuetan, ondo dagoela; ohorezko krimenak deitzen diete. Espainian, orain dela gutxi arte emakumeen aurkako indarkeria, ferra txiki bezala hartzen zen.

• Inpaktatu zaituen kasuren bat ?

Sudanen emakume bat dago kondenatua umea galdu duelako; nahiz eta medikuak deklaratu emakumeak ez duela borondatez abortatu, salatu eta hiltzera kondenatu dute. Hamar urte daramatza kartzelan eta denbora horretan sendagilea behin bakarrik deitu dute deklaratzera. Abortuagatik hilketak Iatigoarekin zigortzen dira, adulterioagatikoa, berriz, harrika. Pakistanen berriz, bi

ahizpa abokatuk ihes egin behar izan dute emakumeei laguntzeko despatxu bat jarri izanagatik.

■ Zeintzuk dira arazo honekin hukalzeko hartu beharreko neurriak ?

Neurri errepresiboak hartu behar dira. Legeak gogortu eta estatuei legeak betetzea eskatu. Horretarako, estatuak medioak jarri behar ditu. Hezkuntza ere oso garrantzitsua da; neska eta mutilek berdintasunean hezi behar ditugu.

"Genero biolentzia familia barruko arazotzat daukate leku askotan"

Sei herritarrek hartuko dute parte Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketaren finalean maiatzaren 1Gan Legazpin

Bestalde, Maria Ferreiro eta Ainhoa Agirre 2. eta 3. postuan sailkatu ziren Lezon

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketaren finala ospatzeko garaia iritsi da, azkenik. Lezon bukatu zen ligaxka joan den apirilaren 24an. Bertan Elgoibarko bi dantzarik bakarrik parte hartu zuten, A sailekoak (7-11 urte bitartekoak), eta emaitza ezin hobekak lortu zituzten. Maria Ferreiro 2. postuan eta Ainhoa Agirre 3. postuan sailkatu ziren. Zorionak biei, beraz.

Bestalde, titularrean aurreratu moduan, Elgoibarko sei dantzari, lortu dituzten emaitzen arabera, finalera iritsi dira. A sailean (7-



Ainhoa Agirre eta Anzaia Astigarraga dira argazkikoak.

11 urte): Ainhoa Agirre, Amaia Astigarraga eta Maria Ferreiro. B sailean (11-15 urte): Dorleta Fernandez, Maitane Moreda eta Miren Ramos.

Legazpin izango dute finala domeka honetan, maiatzaren 16an, goizeko 10:30ean hasita, lehenengo A sailekoak eta B sailekoak ondoren. Urte osoan zehar egindako lanaren ondorioz lortutako emaitzak txalagarriak dira. Orain finalean azken esfortzu bat egin eta sariak etxeratzea besterik ez zaie falta. Orain arteko mailari eusten badiote, batek baino gehiagok izango du sariok eskuratzeko aukera.

"Oskorri & The Pub ibiltarian ikuskizum gaur, hilak 14, Herriko Antzokian



Udalaren Euskara batzordeak "Euskal Kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, Oskorriren "The pub ibiltaria" antolatu du maiatzaren 14an Herriko Antzokian, Herri kantuak berreskuratzeko asmoz, Oskorriren proiektu berri bat jarri zuen martxan 1997an, hain zuzen, "Oskorri & The pub ibiltaria" deitzen dena. Dagoeneko, 141 kantu berreskuratu ditu taldeak eta 8. disko honetan beste 18 kantu gehiago jaso ditu. Aurrekoetan bezala, kantagintza tradizioarekin hartutako kantuak dira: "Loreak udan festara", "Guardasol kirten motz bat", "Agur eta Ohore Euskal Herriari", etab.

Lagunartean kantuan aritzeko ohitura berreskuratzeko asmoz ekin zion Oskorriren proiektu honi. Kontzertu irekia izango da eta publikoak kantaldiko protagonista bihurtzeko aukera izango du, Oskorrikoekin batera, kantuak abestuz. Kontzertu honetarako sarrerek 8 euroren truke eros daitezke (16 urte artekoak 4 euro). Saioa 22.15ean hasiko da.

Elgoibarko Izarra Idalz Lehiaketaren sari banaketa maiatzaren 21ean izango da

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen Elgoibarko Izarra Idatz Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia datorren barixakuan, maiatzaren 21ean, izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 2003. urteko edizioari dagozkion sariak izango dira. Bertso-Paper Lehiaketako sari banaketarekin hasiko da ekitaldia. Ondoren, "Bertso Magia" saioa eskainiko dute Jon Martin eta Alain M. Urrutia bertsolari gazteek. Ea iaz Sustrai Colina eta Amets Arzalluz iparraldeko bertsolariek eskaini zuten saio polita errepikatzeke gai diren. Azkenik, ipuin lehiaketako sari banaketak emango dio amaiera 19:00etan hasiko den saioari.



14 BARIKAKUA

17:30 **KIRIBILKA HAUR ETA GURASOENTZAT PROGRAMA**

Plaza Handian

18:30 **ODOL ATERALDIA**

Anbulategian

20:00 **FOLK-JAZZ FUSIO**

KONTZERTUA

Taldea: "Mugak zabaIduz"

Musika Eskolako Auditorioan

Antolatzailea: Kutxa Gizarte Ekintzaren bitartez

22:15 **"OSKORRI" TALDEAREN**

KONTZERTUA

"The Pub Ibiltaria 8"

Herriko Antzokian

16 DOMEK1A

12:30 **UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**

Herriko Antzokian

16:30 **"MUNCHAUSENGO**

BAROIAREN ABENTURAK"

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

Taldea: "La Baldufa" komedianteen

konpainia

6-14 urte bitartekoentzat

Herriko Antzokian



17 ASTELEHENA

19:30 **KONTZENTRAZIOA**

Lema: "Euskal Presoak Euskal Herrira"

Plaza Handian

Antolatzailea: Euskal Herria Aitortu eta

Errespetatu Ekimena

21 BARIKAKUA

19:00 **SARI BANAKETA**

Elgoibarko Izarra Idatz Lehiaketa

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur

Elkartea



22:00 **BIDEO FORUM-A**

Filma: "Lucia y el sexo"

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

HAUTESKUNDEAK

Korreo bidezko botoa

Ekainaren 13an Europar

Legebiltzarrerako hauteskundeak direla-eta, Elgoibarko Uri Buru Batzarrak EAJ alderdiko bazkide eta jarraitzaile guztiei jakinarazi nahi die botoa korreoz emateko aukera dutela ekainaren 13an ezin badute botoa dagokien mahai elektoralean eman. Batzokian astelehenetik ostiralera izango da aukera 11:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.

BARNETEGIAK

Bertso-Barnetegi eta egonaldiak

Uda honetan zerbait desberdina egin eta ongi pasatu nahi duten gaztetxoentzat bertso-barnetegi eta egonaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak. Egonaldi horien bidez, ongi pasatzeko (txangoak, kirolak, jolasak...), euskara lantzeko, bertsoekin gozatzeko, bertsolarien bisitak jasotzeko eta elkar ezagutu eta lagun berriak egiteko parada eskaini nahi die 12-18 urte bitarteko gaztetxoek. 13 eta 15 urte bitartekoek uztailaren 1etik 20ra izango dute aukera Aubixa baserrian eta 15 eta 18 urte bitartekoek uztailaren 21etik 30era bitartean. 12 eta 14 urte bitartekoentzat Zuhatza urtegiaren izango da barnetegi irailaren 2tik 6ra. Izena emateko epea maiatzaren 20ra arte egongo da irekita. Matrikula bi eratara egin ahal izango da: www.bertsozale.com web gunean edo Elgoibarko Udaleko Euskara sailean (943 74 43 66),

ZINE
kluba



"El domingo si dios quiere"

Zuzendaria: Yamina Benguigui.

Antzezleak: Fejria Deliba, Zinedine Soualem.

Arrera oso ona izan du Frantzian eta nazioarte mailan, berriz, sari ugari jaso ditu, besteak beste, Torontoko Zinemaldiko Kritika Saria. Yamina Benguigui zinemagileak konpromiso tinkoa du birgizarteratze politiken arloko araudiak eta erabakiak salatzeko, eta hala erakusten du, dokumentalgintzan izan duen 12 urteko ibilbideak. Bigarren Mundu Gerratearen ostean, Frantziak eskulana eskainiko zioten gizonezkoen beharra zuen eta milaka argeliar hartuko ditu araudi zorrotza eta latza betearaziz. Bien bitartean, hauen familiak jaioterrian geratu dira.

KONTZERTUAK

Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domeka honetan, maiatzaren 16an, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako piezak joko dituzte: "El Graff zeppelin" (Teike), "Los esclavos felices" (J.C. Arriaga), "Bell Across the Meadows" (A. Ketelb), "Mission Imposible" (L. Schifrin), "The power of love" (S. Cortland) eta "Caribbean Concerto" (Kees Vlak). Saioa 12:30ean hasiko da.

OSPAKIZUNAK

54ko kintoak

Elgoibarren jaio, bizi edo lotura afektiboak izan eta 2004an 50 urte betetzen dituztenek ekainaren 5ean egingo dute lagunarteko bazkaria. Joan nahi izanez gero, 75 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxaren kontu zenbaki honetan: 3035-0007-21-0071031200. Maiatzaren 21a izango da azken eguna. Informazio gehiago Maritere Arakistaini deituta: 943 74 45 16 (9:30etik 12:30era) edo Eloisa Zubiaurreri deituta: 943 74 13 97 (14:00etatik 20etara).

49ko kintoak

1949an jaiotakoek kinto bazkaria ospatuko dute ekainaren 19an, Sigmako jatetxean. Egunean bertan 13:00etan elkartuko dira argazkia ateratzeko Udaletxe aurrean. Joan joan nahi dutenek La Caixako kontu zenbaki honetan: 21004168772100091490 sartu beharko dituzte 55 euro. Ekainaren 10a baino lehen egin beharko dute.

AISIALDIA

Euskal Joku Olinpikoak

Datorren zapatuan, maiatzak 15, Mendaroko In Leike begirale taldeak Trixixapo 2004 egitasmoarekin jarraituz, hirugarren ekintza prestatu du. Oraingoan "Euskal Joku Olinpikoak" antolatu ditu. Bertan, arratsaldeko 16:30ean hasi eta iluntzeko 18:30ak aldera arte lehiari arituko dira osatzen diren talde ezberdinak. Bertara Mendaroko edozein haur azal daiteke baina ikastolan izena ematea gomendatzen da ostegunerako, hilak 13, begiraleek taldeak larunbaterako antolatzeko. Beraz, umeok prestatu zaitezte Mendaroko lehenengo joku olinpikoetan parte hartzeko!

MOBILIZAZIOAK

Amnistiaren aldeko mugimenduak

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak datorren asteko Amnistiaren Aldeko Aste eta Nazioarteko Konferentziaren harira hurrengo ekintzak antolatu edo babesten ditu: astelehena 17, 19:30etan kontzentrazioa "Euskal Herria Aitortu eta Errespetatu-Amnistia Osoa" lemapean, Plaza Handian. Ostirala 21, 20:00etan eskualde mailako manifestazioa Eibarko Untzaga plazatik. Ostirala 21, 21:00etan kontzertua Usurbilen: "Ken Zazpi", "La Kinky Beat", "Reincidentes", "Berri Txarrak", "Banda Basotti" (sarrerak Eibarko Hilbera tabernan salgai). Igandea 23, 13:00etan manifestazioa "Amnistia Osoa" lemapean Donostiako Boulebardetik hasita.

nigh

zine

KARTEI DEGI

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Oceanos de fuego"

15, zapatua: 19:30-22:15

16, domekia: 19:30-22:15

17, astelehena: 22:15

"El domingo si dios quiere" (Z.K.)

20, eguna: 22:15

"Y entonces liego ella"

21, barixakua: 22.15

EIBAR, Unzaga

"Troya"

14, barixakua: 18:30-22:00

15, zapatua: 18:30-22:00

16, domekia: 18:30-22:00

17, astelehena: 18:30-22:00

18, martitzena: 18:30-22:00

19, eguaztena: 18:30-22:00

EIBAR, Rialto

"50 primeras citas"

14, barixakua: 19:30-22:15

15, zapatua: 19:30-22:15

16, domekia: 17:00-19:30-22:15

17, astelehena: 17:00-19:30-22.15

18, martitzena: 19:30

19, eguaztena: 19:30

BABIÑek ez du gerta liezken emanaldien aldiaketen erantzokorik.



"Oceanos de fuego"

Zuzendaria: Joe Johnston.

Antzezleak: Viggo Mortensen, Zuleikha Robinson, Omar Sharif.

Suzko Ozeanoa izeneko zaldi lasterketa Arabiako desertuan zehar egiten zen 3.000 kilometrotako biziraupenezko lasterketa izugarria zen. Urtero egin izan zen mendetan eta zaldi arabiarrik onenek bakarrik gaindi zezaketen horren lasterketa gogorra. Erregeen zaldiek bakarrik betetzen zituzten beharrezko baldintzak, baina 1890ean xeke arabiar dirudun batek zaldun amerikar bat gonbidatu zuen parte hartzera. Amerikarra ez da edonor, ordea, mendebaldeko zaldunik onena baizik.

N

11.9



1~111" 11111 loil

.....100001

ste honetako erretratu zaharra Roman Igartuak laga digu. 1955. urteko maiatzaren 6an ateratako argazkia da. Egun honetan, Arte Grafikoen Eguna ospatzen zuten, San Juan Arte Porte Latina, hain zuzen ere. Lasa inprentako lantaldeak bazkari bat eginez ospatu zuen eguna. Agoteneko tabeman ateratako argazkia da, eta bertan, lantegiko langileak ageri dira, ikusten denez, umore oso onean. Gogora dezagun zein diren argazkian ageri direnak.


Zutik, ezkerretik eskumara: Jesus Urbietta (t), Patxi Avinzano, Roman Igartua, umea ezezaguna eta Milagros Berganzo.

Eserita, ezkerretik eskumara: Migel Sanchez, Pedro Gallastegi (t), Mari Karmen Araolaza, Maria Crescen Egurrola. Pedro "El bilbaino" (t), Angel Lasa (t) eta Ana Mata.




ESKERTZA

2004ko maiatzaren 10ean, 86 urte zituela hil zen, **TIBURCIA ALBERDI ZUBIZARRETA**ren seme-alabak, bilobak, anai-arrebak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2004ko maiatzaren 9an, 75 urte zituela hil zen **GERARDO CASTRILLEJO IGLESIAS**en emazteak, seme-alabek, bilobak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEI EN-1:1DE



Kolerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria lasteko gela berria



San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR



Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Makina
Erremintaren
Institutua

Instituto de
Maquina
Herramienta

INFORMAZIOA:

Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa: 943 74 41 53

eposta: nekane@imh.es

www.imh.es

AMOR

1/4
Euskadi



Izena emateko epea:

Ekainaren 1etik 9ra, biak barne

2004-2005 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOAK

GO1 MAILA (A- D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produktzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A- D ereduak)

- Mekanizazioa
- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazioa eta Mantenimendu Elektro-Mekanika

***berrila**

ATE IREKIAK:

maiatzaren 20an eta ekainaren 3an,
arratsaldeko 19:00etan

amliion Muñoz



MoioLzok 28, ostirola
92:1 Seon
Herriko nntzokion

f1 C3 I
_ e_lie_S



KULTURA SAILA



FORLI AIDUNDIA



JAURLAR17.7A

SAREA



HARITZ EIUSKALDANTZARITAI.DEA

.1Bilik.

Nunchowsengo 13eroiwen AbenturQk



Maiatzak 16
igandea
16:30ean

Herriko Antzokian

/hwicliausPouoS'170Lui. epaiketa eitch zaio hern cpiitet;i 63.

Spliketd lio77ctah Sci70i117Ch Litc Mi7egle itte73;;Ch di7a tiC eht Sthh.

S470iOi enuln ziotch hain63 kitent'zia ;,oL;o4h5rar7i kokitatu...



KULTURA SAILA



FORLI AIDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA

01 Deba Seheko Eskolarteko
Antzerki Erakusketa
Muestra de Tentro Escolar
de! Bajo Deba

WIT YI YY TTYVY '!IITYYT / • ITTYT v! ", YITI ITIT Y IMIT Y YIYvy w 'TWI' YTT' TTY,